

30.000 bisitari inguru eduki ditu Santa Mariak udan

Beste uda batez, Santa Maria Katedrala turismoaren epizentroa izan da hiriburu arabarrean. Tenpluan ere berretsi dira hirian erregistratu diren datu onak; 30.000 bisitari inguru erregistratu dira ekainetik abuztura. Gero eta ohikoagoa da Gasteizera bisitan datozenak hirigune historikora hurbildu eta katedrala ikustera etortzea.

Gainera, uda honetan bereziki nabaritu da El silencio de la ciudad blanca nobelak izan duen eragina. Eva García Sáenz de Urturi arabarrak idatzi du, eta lehena da liburu salduenen zerrendan. Bada, tenpluan bertan kokatzen da tramaren zati bat. Halaber, nobelaren egokitzapen zinematografikoaren filmazioa hartu du hiriak abuztuan, eta horrek are gehiago piztu du jendearen interesa.

Ohikoa denez, lurpeko kriptetan hasi eta hiriaren talaiaraino (Santa Maria dorreraino) gorantz egiten duen ibilbidea eskatu da gehien, ikuspegi izugarriez goza baitaiteke handik goitik.

Uda honetan, gainera, atzerritarren turismoak gora egin du; guztizkoaren % 15 izan da. Horren erakusgarri da egun batzuetan audiogidak amaitu izana, zeintzuen bidez norberaren hizkuntzan jarrai daitekeen bisita, talde gidatu batean. Familia-bisitak ere sendotu egin dira.



Programa Catedral-Fundación Barrié / Fundación Catedral de Santiago

Santiagoko Gloriaren arkupea zaharberri- tzeko lanetan lagundu du Gasteizek

Uztailaren 27an, Santiago de Compostelako Katedraleko Gloriaren arkupea ireki zitzaion jendeari, ikusmin handiz, zaharberri-
lanetarako hamar urte itxita egon ondoren. Proiektuak hasieratik bertatik egin zuen hainbat diziplinaren arteko ikerketaren eta zeharkakotasunaren alde eta horretarako estatuko eta nazioarteko adituak eduki ditu. Zaharberri-
lanei esker, Mestre Mateok 1211n olioan egin zituen hiru polikromatu berreskuratatu ahal izan dira.

Santa Maria Katedrala Fundazioak ere parte hartu du zaharberri-
horretan; tenplu gasteiztarren goitik beherako zaharberri-
lanetan garatutako eskarmentua eta lana han ezarri dira han. Zehazki, arkupeko elementuek aurreko faseetan zuten egoera erregistratzeko eta kudeatzeko metodologia bat garatu du Santa Mariak, baita zaharberri-
zearen azken fasean egindako tratamenduen xehetasun guztiak erregistratzekoa ere. Horrekin, etorkizunean zehaztasun osoz jakin ahalko dira, hala nola, patologia zehatz baten kokapena edota egin diren ehunka azterketaren emaitzak.



Kontzertuan eta Irekita ekimenak amaiera emango dio denboraldiari

Abuztua kontzerturik gabe igaro ondoren, Santa Maria Katedralak irailean berrartuko du musikaren erritmoa. Kontzertuan eta Irekita zikloa, zeina Jazzargia kultur elkartearekin lankidetzan antolatzen den, umorez jositako ikuskizun musikal batekin iritsiko da denboraldiaren amaierara. Irailaren 22an izango da, eta Demode Quartet izango du protagonista. Patxi Barco da Demode Quartet taldeko gidaria, eta Joli Pascualenak, Mikel de la Fuentek, Iker Huitzik eta David Roscok osatzen dute taldea. Beraiek esaten duten moduan, «antzoki batean ondo pasatzeko beste modu bat dago: musika ahotsekin eginez, maila handiko ahots elkartu eta dibertigarriekin bakarrik. Beldurrik gabe. Ez daramagu sarerik, oso ausartak gara-eta».

Santa Marian, ezagunak zaizkion baina "horrela inoiz entzun ez dituen" abestien bertsioak entzungo ditu jendeak ikuskizunean. 20:30ean hasiko da.

Ikuskizun horrekin itxiko da berriro ere ikus-entzuleen babesa eduki duen denboraldia. Musika-estilo asko jaso ditu aurtengo denboraldiak, eta proiektua sendotzen lagundu du horrek.



MagialdiA VITORIA-GASTEIZ

Hilaren 18an eta 19an, katedralera itzuliko da MagialdiA. 19:00etatik aurrera, 30 minutuko magia-ikuskizunak egongo dira talde txikientzat. Haurrentzat egokiak ez diren hiru emankizun egongo dira egunero. Sarrera doakoa izango da, eta Aitzogile kaleko 97. zenbakitik sartu beharko da.

Udako ikastaroak

Uztailean, 'La catedral. Ingenium ut aedificare' udako ikastaroa egin zen Madrilen. Hiri horretako Bideen, Kanalen eta Portuen Ingeniariaren Goi-mailako Eskola Teknikoak eta Juanelo Turriano fundazioak antolatu zuten. Jose Maria Goicoleak eta Francisco Javier Leonek zuzendu zuten ikastaroa, eta hogeita hamarretik gora ikaslek hartu zuten parte. Ikastaroa itxi zuen mahai-inguruan egon zen Santa Maria Katedrala Fundazioa, Leandro Cámara zuzendari teknikoak ordezkatuta. 'Gasteizko Santa Maria Katedrala: "obretan eta irekita" egotetik garapen integralera' izeneko hitzaldia eman zuten.

Familia-bisitak

Familia-turismorako helmuga izateko konpromisoan, irailaren 29an (larunbata) izango dugu familiei zuzendutako hurrengo bisita, 18:00etan. Euskaraz izango da, eta, bertan, haurren mintzairari egokitutako diskurtsoa erabiliko da, arazorik gabe ulertu eta gozatu ahal izan dezaten ibilbide osoaz.